



GAZTEEN EUSKAL
BEHATOKIA

GEBren dokumentazio zentroko 2022ko azaroko artikulu nabarmenak



BARRIENTOS SOTO, A., 2022. [Revisión crítica de la historia y desarrollo de la educación alternativa y las escuelas de segunda oportunidad](#). Revista de humanidades, no. 45, pp. 171-196. ISSN 1130-5029, 2340-8995

Gutxik ulertzen dute zer den Hezkuntza Alternatiboa, neurri batean bere definizio eta adierazpen ugariak direla-eta, eta maiz lotzen da Montessori eta Waldorf bezalako proposamen pedagogikoekin, besteak beste. Hezkuntza Alternatiboaren osagai bat diren bigarren aukerako eskolak bihurtu dira gizarteratzeko tresna, normalean eskola-ingurune homogeneo batean lantzen ez diren hezkuntza-premiak dituzten gazteentzat diseinatutakoa. Artikulu honek egiten du haien ereduaren historiari eta estrategia komunei, tipologiari eta, hezkuntza erregularrarekin alderatuta, erabilitako antolaketa-eskemei buruzko berrikuspen kritikoa. Gainera, gazte horien atxikipenean, jardunean eta graduazioan duten eraginari buruzko irakurketa egiten da, proiektuen txostenetan eta Europako, Latinoamerikako eta Ipar Amerikako esperientzian oinarrituta.

OTXOTEKO, M., 2022. [Los juegos digitales más allá de las lógicas disciplinarias y de vigilancia](#). Artnodes: revista de arte, ciencia y tecnología, no. 30, pp. 1-9. ISSN 1695-5951

Gaur egun, joko digitalak interaktibitatearen adierazpenik nagusienak dira, eta entretenimendurako lehen aukera dira zenbait herrialdetan, Espainian, esaterako. Horrela, badirudi industria gazte hori soziabilitate- eta ikaskuntza-moduei eragiten ari zaiela. Hedabideen digitalizazioarekin sortzen ari diren irudi-mota berrien eragina atzeraezina dela ikusita, zenbait adituk, hala nola Trevor Paglen artista eta teorialariak, honakoa galdetu diote bere buruari: «Zer da ikustea eta zer esan nahi du ikusteak une historiko jakin honetan?». Gai horren inguruan, eremuko aditu askoren argudioak kontuan hartuta, honako hau erantzun beharko litzateke: arlo sozial, etiko eta politikoan zuzenean eragiten duen zerbait da. Kezka horiek bultzatuta, artikuluak aztertzen du ohiko jokabideak eta ohiturak sortzea joko

digitalen bidez, bai eta industria horrek kapitalismoaren eta, bereziki, diziplina militarreko esparruaren prestakuntza- eta zaintza-beharrekin duen lotura ere. Azkenengo eztabaidan zabalik uzten da ikerketa honetatik eratorritako beste garapen batzuetarako atea. Bertan planteatzen dira erronka batzuk, pertzepzioaren eta ikaskuntzaren hurbilketa ekologikoarekin lotzen direnak, eta horiek joko digitalen egiturei eta logikei eragingo liekete nahitaez. Asmo horien helburua izango litzateke irudimen sentikorra eta balioen sorrera sustatzea, hala nola bizi garen munduarekiko enpatia eta konpromisoa.

LLORÍA ADANERO, R., 2021. [Crisis económica y emigración cualificada: cuando la movilidad internacional esconde una emigración laboral](#). Revista Internacional de Estudios Migratorios (RIEM), vol. 11, no. 2, pp. 147-175. ISSN 2173-1950

Artikulu honen helburua da Espainiatik ateratako emigrazio kualifikatuari buruz egindako ikerketa baten emaitzak ezagutaraztea, herrialde horretan eragin handia izan zuen 2007ko krisi ekonomikoarekin duen lotura ikusteko. Metodologia kualitatiboa erabili zen, 24 eta 37 urte bitarteko ingeniariari elkarrizketa sakonak eginez, bai atzerrian, bai Espainian. Ikerketa-teknika horri esker, emigratzeko arrazoi nagusiak ezagutu ahal izan ziren, bai eta haien etorkizuneko asmoak ere, diskurtsoaren azterketatik abiatuta. Ildo horretan, ondoriozta daiteke krisi ekonomikoaren eragina lan-merkatuan izan zela emigratzeko arrazoi nabarmenena, baina, horrekin batera, lan-merkatua bera nahiz haren ezaugarriak ere (aldi baterako eta lanaldi partzialeko kontratuak, soldata txikiak, beken abusua, etab.) argi eta garbi agertzen ziren arrazoen artean; izan ere, lan-merkatuaren ezaugarri horiek prekarizazioa ekartzen dute, eta, beraz, ez da oso erakargarria.

Horrela, emigrazioaren eta krisi ekonomikoaren arteko erlazioak, halaber, lotzen zituen norberaren lan-espektatibak Espainiako ekonomiaren etorkizuneko aurreikuspenekin, bai eta lan-merkatuaren lan-baldintzak hobetzearekin ere, atzerrian bizitako eta lortutako esperientziaren arabera. Hau da, atzerriko lan-baldintzak ezagutu ondoren, baldintza horiek mantendu ahal izatea zen Espainiara itzultzeko betekizuna. Testuinguru horretan, emigrazio kualifikatua garun-ihesa ekar lezake eta emigrazio ekonomikotzat har daiteke.